

ALKATEARI

Talde Popularreko zinegotzi Borja Corominas Fisasek, Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren kultura bonuen gaineko MOZIO ARRUNT hau aurkeztu behar dio Udaltzari, osoko bileran eztabaidatzeko.

JUSTIFIKAZIOA

lazko abenduaren hasieran, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailak kanpaina bat aurkeztu zuen prentsaren aurrean. Aldundiaren webgunean jartzen duenez, *Kultura Departamentuak kulturaz gozatzea sustatu, saritu eta fidelizatu nahi du, eta kultur edukien merkataritza eta banaketa sarea indartu, liburu dendek kultura produktuen eskaintza zabala baitute, Gipuzkoa bezalako gizarte moderno eta multikultural bati dagokion bezala.*

Kanpaina abenduaren 3an hasi zen, eta urtarrilaren 29an amaituko da, eta Gipuzkoako 64 establezimendu atxiki dira. Hala, 80.000 euroko diru sail bat jarri du Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuak, eta 8.700 kultura bonu jarri ditu salgai, literatura, musika eta zinema erosteko.

Horra arte, ederki dena. Kultura sustatzea gauza beharra da, eta laguntzak oso ondo hartzen dituzte herritarrek. Izan ere, “lortu nahi dugu bonua ahalik eta pertsona gehienek baliatu ahal izatea literatura, musika eta zinema erostera animatuz” esan zuen Harkaitz Millan Kulturako diputatuak Kultura bonua aurkeztekoan.

Baina, leitu dezagun gipuzkoar guztien –euskaraz hitz egiten dutenen eta ez dutenen– diruarekin pagatzen den ekimen honen letra txikia; zeren, euskarazko kultura-produktuentzako hobaria 12 € izan daiteke, 20 € baino gehiagoko erosketa egiteagatik, eta beste hizkuntza batzuetako kultura-produktuentzako hobaria –gaztelania tartean, eta hizkuntza ofiziala da gaztelania Euskal Autonomia Erkidegoan– 8 €, 20 eurotik gorako erosketa egiteko.

Euskararen erabilera normalizatzeko 10/1982 oinarrizko Legeak, ordea, zera jartzen du: *“Euskara euskal herriaren hizkuntza propioa izateak eta gaztelaniarekin batera hizkuntza ofizial izateak, arrazoi bat ala beste dela-eta euskara erabili ezin duten herritarren eskubideei inongo kalterik ez die ekarri behar, inondik inora, Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 6, artikulua 3. zenbakian propio esaten denarekin bat”.*

Euskal Herriko herritar guztiak integratzeko elementua da hizkuntza, eta ez da erabili behar euskaraz hitz egiten duten edo ez duten herritarrek apartatzeko. Kultura bonu hauek, ordea, hala egiten dute, produktuak euskaraz erosten dituzten pertsonen mesede eta euskaraz ekoizten duten enpresei laguntzen diete eta.

Hori dela eta, hauexek dira gure

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udaltzako Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailari eskatzen dio Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen arteko bereizkeriarik ez egiteko Kultura bonuaren kanpaina eta horrelako kanpainak egitekoan.

Donostian, 2022ko urtarrilaren 7an

Borja Corominas Fisas

Udaleko Talde Popularraren bozeramailea